

Euskalkien sailkapen berria dela eta *On the new Basque dialect classification*

Gotzon Aurrekoetxea

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Xarles Videgain*

Université de Pau et des Pays de l'Adour (UPPA)

ABSTRACT: The purpose of this paper is to revise the opinions and the data that appear in the earliest reviews of the book *Euskalkien sailkapen berria* (Aurrekoetxea, Gaminde, Ormaetxea & Videgain 2019). We classify these opinions and the data therein into two groups: first, we address the most unknown relevant features of the giant project *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa-EHHA*. Then, we discuss the methodology utilized in the new classification of Basque dialects.

KEYWORDS: classification of dialects; geolinguistics; *EHHA*.

LABURPENA: Euskalkien sailkapen berria *deitu liburuak* (Aurrekoetxea, Gaminde, Ormaetxea & Videgain 2019) izan dituen lehen kritiketan agertzen diren datu eta iritziak zuzentzea du xede artikuluko honek. Iritzi eta datuok bi multzotan sailkatzen ditugu: batetik, Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa-EHHA egitasmo erraldoiaren ezaugarri ezezagun nabarmenenen berri emango da. Bestetik, euskalkien sailkapen berrian erabilitako metodologiak jardungo da.

HITZ GAKOAK: *dialektoen sailkapena; geolinguistika; EHHA.*

1. Euskalkien Sailkapen Berriaz

Euskalkien sailkapen berria lanak (Aurrekoetxea, Gaminde, Ormaetxea & Videgain 2019) bi kritika artikuluko jaso ditu (Zuazo 2020; Coyos 2020). Hain azkar ager-tzeak irakurketa desberdinak izan ditzakeen arren, lanaren balioaren seinaleztat jo-tzen dugu eta alde horretatik eskertzen ditugula esatea baino ez zaigu gelditzen. Hari beretik tiratuz, esan behar da ikerketan kritika beti dela beharrezko, ezagutza berria eskuratzeko bidean.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Xarles Videgain. IKER UMR 5478-CNRS. Gaztelu Berria, 15 Paul Bert plaza (64100 Baiona). – charles.videgain@univ-pau.fr

Nola aipatu / How to cite: Aurrekoetxea, Gotzon; Videgain, Xarles (2023). «*Euskalkien sailkapen berria dela eta*», *ASJU*, 57 (1-2), 89-104. (<https://doi.org/10.1387/asju.25984>).

Jasoa/Received: 2022-10-05; Onartua/Accepted: 2023-01-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

2. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*-EHHaren onurez

Badirudi *EHHA* egitasmoan erabili diren iturri, metodologia eta helburuen gainean ezjakintasun handia dagoela euskal hizkuntzalariengan. Hala azaltzen da *Euskalkien sailkapen berria* (aurrerantzean *ESB*) liburuari egin kritiketan. Hori dela eta, *EHHA*ren oinarriaz eta balioaz jardungo dugu lehen-lehenik.

2.1. *EHHA*ren galdesorta eta haren iturriak

Zuazok *EHHA* egitasmoaz jaulki dituen kritikek ertz asko dituzte, baina horietako batzuk bederen ezjakintasunean oinarritzen dira. Nabarmena da hori *EHHA*ren galdesortaren hastapeneko iturriez ari denean, izan ere Mitxelenaen *FHV*, Azkueren *Erizkizundi Irukoitza* eta Irizarren *Contribución a la dialectología...* aipatzen baititu iturri nagusi gisa (Zuazo 2020: 272), eta hori okerra da: bestelakoek osatu dute *EHHA*ren galdesortarako oinarria. Galdesorta osatzeko, nola beste puntu askotan, kanpoko aditurik hoberenak zein ziren so egin eta haiekin harremanetan sartu ginen lana nazioarteko estandarretan egin izan zedin. Lexikorako iturriak inguruko atlasen galdesortak izan ziren. Aipamen berezia behar dute lehenik aztertu genituen Alvarren *ALEARN-Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y la Rioja* eta Séguyren *ALG-Atlas linguistique de la Gascogne* atalasek. Ondoren Galiziako *ALGA-Atlas Lingüístico galego*; Veny-ren *Atlas Lingüístico del Domini Català-ALDC* eta Alvarren beste batzuk, Frantziako *Atlas linguistique de la France-ALF, Atlas linguistique du Lyonnais* (Gardette 1951) eta Europako beste hizkuntza atlas batzuk ere kontsultatu genituen. Egile batzuekin elkarriketatu ere egin ginen: Ravier (*ALLOC-Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc Occidental*), Fossat eta Allièreekin, J. Ph. Dalbera (fonologiaz) eta M. J. Dalbera-Stefanaggirekin (*Atlas linguistique de Corse*), Veny, Rafel eta Cerdá katalanekin, Alsaziako hizkuntza atlasaren informatizazio-arduradun zen Philippsekin (ikus Philipps, Bothorel-Witz, Spindler 1984), Goebblekin (*Sprachatlas des Dolomitenladinischen und angrenzender Dialekte-ALD*) eta honi kartografia egin zion enpresa-buruarekin; Le Dû (*Nouvel atlas linguistique de la Bretagne*), Rebuschi (1984), Frantziako atlasen ardura zuten Bouvier (1982) eta Simoni-Aurembourekina eta CNRS-ko arduradunekin ere elkartu ginen. Mapagintzarako Bertinen lanak (1967) eta Brunetenak (1987) ikertu genituen eta *Mappemonde* agerkaria ateratzen zuen Reclus ikerzentroko arduradunekin ere bildu ginen. Euskararen atlasaren asmoa behingoan gauzatu behar bazen, besteek eskuratutako ezagutzaren berri izan nahi genuen. Eta zinez, laguntza intelektual handia lortu genuen.

Gramatikari dagozkion galderak geuk sortu genituen, Lafonen (1980) eta Allièresen lanak (1979) gida izanik. Euskararen bilakaeraren arau fonologikoez ez ginen arduratu, lexikoan eta gainerakoan biltzea itxaroten zen informazioak behar adinako datu emango zuelakoan. Prosodiarako Gaminderen lanak erabili ziren, metodologia bera erabiliz euskararen eremu osoko datuak argitaratuak zituelako.

5.000 galdera biltzen zituen galdesortaren lehen bertsioa eskuetan, adituekin kontsultak egin genituen (besteak beste, Mitxelenaekin), baina etsipenetik gehiago jaso genuen, euskararen hizkuntza atlasaren historiaurrea ez baita gozoa izan (Etxebarria 1986). Haietako batzuen iradokizunak jarraituz, galdesorta 2.857 galderatarako laburtzea erabaki zen (2.165 lexikoari lotuak, 333 izenaren morfologiari, 260 adi-

tzarenari, 62 sintaxiari eta 37 fonetikari) eta Euskaltzaindiaren «V. Dialektologi jardunaldietan» (Aurrekoetxea 1985) onartu. Irakurlea ohartuko denez, *EHHA*ko galdesorta egitean ez zen ez Mitxelenaren *FHV*, ez Azkueren *Erizkizundi Irukoitza*, ez eta Yrizarren lan itzela erabili.

Hau da benetan gertatu zena *EHHA*ren galdesorta prestatzean. Hasiberriak bai, baina urrats ziurrak emanez aitzineratu nahi genuen. Horrenbestez, okerra da gai honetaz Zuazok eskaintzen duen gainbegirada.

Bigarren kritika: *EHHA*ko galdesortako erantzun bakarra edo mapa mononimoak sortzen dituzten galderak ez omen dute interesik dialektologian (Zuazo 2020: 275-276):

Galdera ugari egin ziren, bai, baina horietako asko interes dialektal gabekoak dira, orokorrak direlako, Euskal Herri osoan berdin esaten direnak: *seme* bezala, *adar*, *aldi*, *ama*, *ardi*, *aste*, *asto*, *atzo*, *begi*, *beso*, *erbi*, *erdi*, *erle*, *etzi*, *gatz*, *gorri*, *gose*, *idi*, *lodi*, *mendi*, *odol*, *sagar*, *txar*... Eta, ostera, euskalkien arabera aldatzen diren beste gauza asko ez ziren galdetu, 1980 aldean ezezagunak zirelako, edo galdetegia egituratu zutenek ezagutzen ez zituztelako.

Zilegi du Zuazok pentsatzea ez jakintasunetik abiatu ginela galdetegiaren egileok. Alabaina, ez dea hori ikerketan abiatu aurretik edozein ikertzailearen egoera? Egia da «euskalkien arabera zer aldatzen den zuzen» osoki ez ezagutzea gertatu zaigula guri, askori bezalaxe. Horregatik egiten dira hizkuntza atlasak eta egin zen hain zuzen ere *EHHA*. Baina pasarte hori idatzi duenak ez dakien konturen bat edo beste ere bada aipuan. Batetik, *EHHA* egitasmoa nazioarteko geolinguistika proiektuen barne kokatzen da eta haiekin partekatzen du hizkuntzen barietateari buruzko ezagutza. Denen gaitetik *ALE-Atlas Linguarum Europae* dugu (Viereck 2006), zeinetan partaide eta euskal datuen iturri den. Bada, aipuko zerrendako ia hitz guztiak *ALE*n sartzen dira. Horrek, gure ikuspegian, erabateko bermea ematen dio gure hautuari, Zuazok *ALE* ezagutu zein ez.

Bestetik, azalpena aipuko hitz guztiek duten arren, ez dira banan-banan aztertuko. Nolanahi ere, esan nahi genuke, hasteko, zerrenda horretako hitzen bat edo beste bere golkotik atera duela (*aldi* edo *lodi* adibidez), ez baitira *EHHA*n galdetzen. Gehiago, honezkero jakin behar du, *EHHA* kontsultatu badu, zerrenda horretako hitz batzuk ez direla mononimoak: «oveja/brebis/ewe» (726. mapa) nozioa adibidez; ekialdean *arres* erantzuna ere badela, alegia. Horrez gain, ‘ardi’ hitza egokia da oso *-r-* hotsaren ebakera desberdinen berri izateko eta interesa genuen erakusteko. Are gehiago, jakin nahi genuen non bereizten den «oveja/brebis/ewe» eta «ganado ovino/espèce ovine/sheep», singular/plural bereizkuntzaz gain, bestelakorik bazen, alegia. Berdintsu esan daiteke *adar* hitzaz («449-rama/branche/branch» mapa); hitz horrez gain, *erramal/branka* maileguak non esaten diren eta hitz beraren aldaera fonetikoak (*aar*, *abar*...) ere erabiltzen direla ikasiko da. *Erdi*, *erditu* aditza sartu nahi izan genuen baikenekien gramatikaren aldetik *erditu* ez zela esaten leku frankotan eta Iparraldean *erdi da* erabiltzen zela; erregistroaren aldetik informazioa bildu nahi genuen *erdi* andere batez ala kabale batez berdin erabil daitekeen. Iparraldean *zure anderea ume eder batez erditu da* entzunen zuen gizonak iraintzat hartuko zuen. Kasu hau balia dezagun erregistroko markak kontuan hartu ditugula esateko, horren berri eman dutelarik eta horretan ere aldaketak badaude euskalkien artean. Kasu be-

rezia da *erle* hitza; hiru esanahi ditu: 1. 'intsektua'. 2. 'erlekume' (arbolatik dilindan dagoen intsektu multzoa). 3. 'kofointara' (kofoin edo erletxe batek jesaiten duen intsektuen multzoa) (*OEHK* lehena eta hirugarrena agertzen ditu). Horren berri bagenuen Oztibarreko etxekandere batek aipatu zigularik «etxen erle biziki» bazuela, berrogoi bat hor nonbait, erakusten zuelarik erle hitzak ez zuela beraz 'intsektu' bakarra adierazten; eta, azkenik, informazio entziklopedikoa ere bildu nahi genuen, Azkueren (1942) edo Barandiaranen (1974, 1975) ildotik. *EHH*Ako liburukietan ez, baina datu-basean bada informazio ugari (erleari zuka mintzatzea, ez gora, ez bortizki, etxeko norbait hiltzen delarik erleak abisatu beharra, *erlekumea* auzo baten lurretan biltzen delarik gizalegez egin behar dena, etab.). *Txar*: hortaz galderarik ez dago *EHH*A n baina bai *zahar* hitzaz; alta Mitxelenaren oharra ezagutzen genuen, dioelarik Baztanen adibidez ongi bereizten direla *gizon xaarra* «el hombre viejo», *g. tzarra* «el h. perverso», *g. txarra* «el h. de mal genio», *g. xarra* «el viejecito», *g. ttarra* edo *ttalla* (infantil?) «el h. *pequeñito*» (*FHV*, 191, 26. oh.). Forma hauei *zar* eta hasperenduak gehi behar zaizkie: *zahar*, *xahar*. *Gose* dela eta («2213-hambriento/affamé» mapa) gramatikaren aldetik genuen interesa: *goseak nago*, *gose naiz*, *gose daukat* eta abar bilduz. *Lodi* nozioari dagokion galderarik ez dago, tamalez, ezen *lodi* eta *gizen* ez baitira sinonimo, geosinonimo izan arren.

Agian, kontu hauek txikikeriak irudituko zaizkio kritikatzaileri, baina jakin behar du galdera horiek berariaz egin zirela, ez direla inkestaren hutsa, ez akatsa, ez eta arduradunen ezjakintasuna. Dialektologia egiteko erabiltzen duen marko teorikoan, beharbada, ez dira beharrezko izango, baina bai beste marko teoriko batzuetan. Honek erakusten du Zuazok interes gabekotzat eta ezjakintasunaren ondorioztat jotzen dituen galdera gehienak nahitara hautatu genituela duten interesaren arabera.

Amaitzeko, aipatu nahi genuke badirela mapa mononimo gehiago, nahiz zerrendan agertzen ez diren. Horietako bat «lluvia/pluie/rain» nozioari dagokiona da. «Euri» motez bost galdera genituen arren, bagenekien gure galdesorta labur geldituko zela, aurretik Videgainek (1989: 109) Oztibarren ondokoak bilduak baitzituen: *eurri*, *tenpesta*, *elementak*, *denbora bihurri*, *zirimoleria*, *erauntsi*, *eazarri*, *euribarrasta*, *zurripitaka ari*, *lantzar*, *lanbrots*, *axeriain ezteiak*.

2.2. Inkesta-fitxa

Galdesortako *itemak* informazio-emaileei nola aurkeztu behar zitzaizkien aztertu zen ondoren. Hortik sortu zen inkesta-fitxa, zeinetan galdera bakoitzak bere fitxa zuen, inkestagintza-unean jarraitu behar zena. Helburua zen herri guzietan galdera guztietan lekukoek estimulu bera izatea, erantzunak guti edo aski erkarriak izan zitezzen; guztiz beharrezko zitzaigun talde-lana baitzen *EHH*Arena.

Inkesta-fitxok alor desberdinez osatuta zeuden: zer-nola galdetu, lekukoa laguntzeko tresnak, hitz aproposen zerranda... Batetik, bilatzen zen *itema* agertzen zen, frantsesez, gaztelaniaz eta behar zelarik latinez adierazia. Maiz zehaztasun gehiago ere biltzen zen, hala nola termino nahasiak zirenean, adiera desberdinetan erabiliak izan zitezkeenak edo ezezagunak zirenean, lexiko teknikoan, etab.

Itemen ondoren galdera zehazten zen. Lexikoan, gehienetan, perifrasi bidez adierazten zen: definizio bat, agertzen zen lekua, keinuz, seinalatuz, argazki edo irudia erakutsiz... hots, informazio-emaieleri laguntzen zitzaion bilatzen ari ginen hi-

tza edo ezaugarria eman zezan. Behin hitza eta haren inguruko zehaztasunak lortuta, absolutibo mugagabeen lortzeko testuinguru konkretu batean emanik lortzen zen; adibidez, *azeria*, *axeria*, *asagaria*... lortu ondoan, *azeri*, *axerü*, *asagari*... forma mugagabeak bildu behar ziren. Ondoren, fitxan nozio horrentzat agertzen ziren hitzen zerrenda erabiliz, ezagutu zitzakeen hitzak proposatu egiten zitzaizkion lekukoari, ezagutzen edo erabiltzen zituen galdetuz. Hala, Bizkaiko mendebaldean *asagari* hitza lortu ostean *luki* hitza ezagutzen zuten galdetu zen eta hainbat herritan lortu ere (hala dakigu Sondikan, Zeberion edo Zornotzan ere ezaguna dela). Hitz horiek biltzean Mujika (1973), Lhande (1926), Larrasket (1939) eta Azkue (1905) hiztegiak arakatu genituen. Esparru berezituetakoa terminoak jasotzeko zenbait monografia ere arakatu genuen; esate baterako, lurra lantzeko tresnen alor teknikoa dela eta (*golde*, *nabar*, *are*, etab.) prestatzeko, kanpoko eta hemengo (Aguirre 1922-1926; Azkue 1942; Barandiaran 1974, 1975) monografia andana bat erabili genuen. Xavier Ravierren *ALLOc-Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc Occidental* ere oso kontuan hartua izan zen, batez ere proposamenak aztertze aldera (Ravier 1985; Aurrekoetxea 1986).

Gramatikari dagokionez, *itemak* lortzeko erdara erabiltzea erabaki zen, nahiz aditz jokatueta eta, behin pertsona bati zegokion erantzuna jaso ondoren, inkestagileak aukera zuen beste pertsoneri zegozkien adizkietarako bestelako erak ere erabiltzeko. Hain zen zehatza fitxaren esparru hau, ezen balizko arriskuak ere aipatzen zituen; oso hurbilekoak ziren nozioak edo gramatika ezaugarriak bereizteko, besteak beste. Adibide bat jartzearen, itzultzeko eskatzen zitzaion esaldia modu batean baino gehiagotan egin zitekeenetan denak biltzearen aldeko apustu garbia egiten zen (*igandean joango naiz / igandearekin joanen naiz*... kasurako edo adizkietan forma jokatuak biltzearen aldeko apustua nominalizazioez gain, **edin / *ezan* adizkietan). Nekez aurkitu da euskara jasotzeko hain galdesorta landurik.

Bidenabar, nahiz eta jaso kritiketan ez den aipatzen, inkesta-lekuen sarea hautatzea borroka luzearen osteko garaipen handia izan zen. Guk 145 leku eta mugaz gaindikoa izatea proposatzen genuen eta lortu, baina jakin beharra dago euskaltzain batzuk prest zirela 30 lekurekin lan egiteko.

Galdesortarekin vs. gabe aritzea dela eta, galdesortez ez fidatuz, gabe ibiltzea gusatzatzen bazaio norbaiti ez dugu arazorik ikusten. Arazoa, ordea, 145 herritan informazio homogeneoa, konparagarria, geosinonimo edo diatopismoak lortu behar direnean agertzen da. Ez dugu guk ukatuko badirela dialektologoen artean galdesortari buruzko filiak eta fobiak. Filiak lan geolinguistikoetan adituek, hizkuntza atlasen egileek, herrietako datu konparagarriak behar izan dituztenek erakusten dituzte. Fobia dutenen artean kokatzen dira monografia hutsak egin dituztenak eta herri batean jasotako datuak beste nonbait bildutako datuekin konparatu beharrik ez dutenak. Zuazoren (2020: 274) ustea, «*EHHA* bezalako galdetegiak sekula ere ez dira erabat ziurrak», oso urrun dago Trudgill ospetsuaren ikusmoldetik (1983: 46): «One, of course, cannot rely exclusively on tape-recorded conversation. Questionnaires are essential for obtaining lexical material, and useful of obtaining rarely occurring features».

Dena den, esan behar da nazioartean egin diren ahozko hizkuntza-bilketa handienak galdesortan bidez egin direla: *BDLC-Banque de Données de la Langue Corse*, *THESOC-Trésor de la langue Occitane*, *Syntactische Atlas Van de Nederlandse Dialecten-SAND* (Barbiers et al. 2005-2006), *The Linguistic Atlas of England* (1998), Ale-

maniako *Wenker* atlasa (*DiWA*), Frantziako hizkuntza atlasa *ALF* famatua (eta ondorengo *Nouvel atlas linguistique de la France-NALF* proiektu erraldoia), Italiako hizkuntza atlasa-*ALI*, Estatu Batuetan, mundu hispanikoan ezin konta ahala atlas eta datu-base egin da, denak galdesortekin... Haien galdesorta ez dela fidagarria ez da askotan entzuten. Horrelako galdesortak ez direla fidagarriak esatea ez dator bat munduan zehar egiten denarekin.

2.3. Inkestagintza

Inkestagintza moldeez asko irakurri genuen *EHHA* egitasmoaren hasieran eta esperientzia ere jaso genuen ikerketa pertsonaletan. Ahalaz, galdera-erantzuna metodoa baztertua izan zen. Galdesorta elkarrizketa gidaturako oinarria zen, gaien hurrenkera gidatzeko; izan ere inkestagintza amaigabeko elkarrizketa gidatua bihurtzea zen helburua.

Lana taldean egin behar zenez, bilketa eredu zehaztu ostean inkestagileak prestatzeari ekin zitzaion. Lantaldea osatzeko Euskaltzaindiak dei publikoa egin zuen eta aukeratu ziren hiru filologo formaziorako ikastaro teoriko-praktikoa eratu zen: galdesorta zehatz aztertu zuten, galdera bakoitzeko helburua eta izan zitezkeen zailtasun eta arriskuak aztertu; ondoren, alfabeto fonetikoan berdintsu transkribatzeko trebatze ariketa bateratuak egin ziren, erantzun guztiak fonetikoki transkribatu behar baitziren. Azkenik, hainbat biltze-saiotan ere izan ziren, galdesorta nola aplikatzen zen ikas zezaten. Nekez ikusi da euskal dialektologian hain formazio-programa zehatzik. Hau dena, Aurrekoetxea eta Videgainen zuzendaritzapean.

Herri bateko datuak biltzeko hasieran hilabeteko epea eman bazen ere, nekez bete zen eta zenbait kasutan 2 hilabeteraino ere behar izan zen. Berak «hilabete edo bi hilabete eman dut zenbait urtez aztergai nuen lekuan» (Zuazo 2020: 275) badio ere, ez dugu guk gutxiago egin. Besterik da gure epeak zein izan diren ezagun duen.

Ettxeko ala kanpoko inkestagileen egokitasunaz eztabaida zaharra da dialektologian; topiko bihurtu da. Alde biek dute onetik eta txarretik: nor den, nola prestatzen duen inkesta, zein trebezia duen... jakin behar da ezer esan baino lehen. Inkestako hizkuntzaz ere bi uste izan dira: batetik, inkesta erdaraz egin behar zela eta, bestetik, inkestagilea herrikoa izan behar zela. Gaiari Zuazok (2020: 275) ere oratu dio, nola ez?: «Gauza da galdegilea, bere eskualdean dabilenean, laster ohartzen dela galdetuak herriko hizkera zintzo erabiltzen duen ala ez; baina galdegileak berea ez den eskualdetik urrundu eta jasotzen ari den hizkera behar bezala ezagutzen ez duenean, ez dauka horretaz jabetzeko modurik». Alabaina, uste hau berdin aplikatu dakioke herri baten hizkerari buruzko lan monografikoa osatzen duenari —beraz, berari ere—, ez bakarrik inkestagileoi. Eta horren lekuko «Ni neu lanean ibili naizen lekuetan ere, hain zuzen, *EHHA*eko emaitzak eta nik bildu ditudanak ez dira sarri bat etorri» (Zuazo 2020: 275). Baina ez du zergatia analizatzen. *EHHA*n erabilitako lekukoek nekez eman zezaketen herriz kanpoko hitzik edo formarik, ezen beraien soslaia *NORM* (*nonmobile, older, rural, male*) deritzona izatea erabaki zen (Chambers & Trudgill 1998: 29). Hots, bere hizkeran ongien eta alboko hizkeretan okerren moldatzen zirenak. Eta zaurtuenezake, euskal hizkuntzalaritzan kanpo-lana egin behar izan diren proiektuetan hausnarketa sakonena egin ondoren aukeratutako lekukoak direla. Argi utzi behar da *EHHA*ko inkestagileak ez zirela itsu-itsuan joaten agintzen zitzaien he-

rrietara eta, besterik gabe, aurkitzen zuten lehena inkestatzen hasi. Hori baino konplexuagoa zen prozedura, nahiz ez den beharbada inon argitaratu. Beraz, emaitzak bat ez etortzeaz hausnarketa eta azterketa beharrezkoa da, ezer esan baino lehen.

Gehiago ere badio: «Ziur nago —halaxe egiaztatu dudalako— *EHHA*ean denetarik dagoela. Iruditzen zait galdegileen inguruko herrietako emaitzak zuzen samarrrak izango direla, baina gainerakoetakoak zuhurtzia handiz hartu behar dira» (Zuazo 2020: 275). Beste behin, datuetan funtsatu gabeko iritzi hutsa; ez dugu uste zientifikoa denik «iruditzen zait...», «zuhurtzia handiz hartu behar dira» eta antzeko esamoldeekin lan bat kritikatzeko edo ezbaian jartzea.

*EHHA*ko inkestageileak arau zehatza zuen: galdera egin, erantzunaren inguruan elkarrizketa sortu hitzaren testuinguruaz jabetzeko, hitzaren erabilera soziolinguistikoa ziurtatzeko eta gaiari buruzko ezagutza etnografikoa lortzeko. Galdetzaileak ez ziren konformatu behar erantzun batekin/bakarrarekin, sakondu behar zuen besterik ba ote zen erabilgarri lekukoan burmuinean; jaso behar zen ez bakarrik haren ezagutza aktiboa, ezen ezagutza pasiboa ere. Hori guztia gertatu da *EHHA*n garbi izan zelako hasiera-hasieratik lekukoek haien bizitzan erabiltzen zuten hizkuntza ahalik eta modu osoenean bildu behar zela. Molde honetan, bestela herrian galdutzat emango ziren, hitz eta forma asko jaso dira (Aurrekoetxea 2002). Diogunaren adibide ederra da «1730-en cualquier lugar/n'importe où/anywhere» mapa. Metodologia hau ez bazen erabili ez ziren *-nahi*-osagaiarekin osatutako (*nainon*, *nonahi*, *nunahi*) edo «edo+» (*edonon*, *edonun*), forma asko Bizkaiko, Gipuzkoako eta Hegoaldeko Nafarroan: Bizkaian *edonon-edonun* 23 aldiz lortu da proposatu ostean eta 5 kasutan *nainon*, eta Gipuzkoan eta Nafarroan 36 *nonahi-nunahi* kasu bildu ditugu. Metodologia honen bidez erantzun ezak, maileguak eta besteak beste arkaismoak detektatu dira.

Esan behar da inkesta guztiak grabatu zirela (4.000 ordu baino gehiago bildu ziren) eta edonork kontsultatzeko moduan daudela (Videgain 2021: 28). Inork zalantzarik badu *EHHA*ko datuez badu hori frogatzeko bidea. Gu ausartak izan ginen hasieratik eta deontologia zientifikoa ezereen gaineratik ezarri genuen. Eskaintzen diren balia bideak kontsultatu gabe, mapa zenbait begiratuta, egitasmoa eta egitasmoaren arduradunak kritikatzeko dituenik ere bada, baina horrek ez gaitu gure ekinbidetan etsiarazten, ez eta gure lanaren balioa apaltzen ere, beste inork eman ez duen eta beste inon ez den altxor erraldoia emateko gai izan garelako zuzen jokatuz.

2.4. Informazioaren kudeaketa

Bildutako datuak transkribatzeko erantzun-koadernoak erabili ziren, herri bakoitzeko 5 koaderno (guztira 1.450 orrialde batz besterik). Argitaratutako monografia askok nahiko lukete informazio-kopuru hori izatea. Ondorioz, esan liteke *EHHA* egitasmoan 145 herritako monografia dialektalak bildu direla. Zinez diogu, monografia hauek ez dira bekaitz euskal dialektologian argitaratu diren monografia askoren. Zuazok (1998) aipatzen dituen ama desberdinetako 51 monografia asko baino osoagoak. Hau ikusi ondoren, «Helduleku bakarria baliatu dute lan honetan: Euskaltzaindiaren (2008-) *Euskararen herri hizkeren atlasa (EHHA)*. Egileen iritzian, oinarri egokia da, baina nik badauzkat neure dudak» (2020: 271) horrela bestelako inolako argumentaziorik eta daturik gabe zalantzat ipintzea inoren lana ez dugu uste zientifikoa denik.

Ororen buru, uste dugu, inkesta bera, inkestalekuen sarea, lekukoen hautaketa eta transkribaketa, metodologia trinko eta zehatz batean sartu genituela. Ematen du trinkotasun horren berri adituek ez dutela izan eta garaia badela hortaz mintza gaitezen luze eta zabal, alderdi askotatik ez baitu gaurkotasuna guztiz galdu.¹

2.5. Mapagintza

Kartografia eredu bilaketan geolinguistikaren eredu desberdinak izan genituen eskuartean: hala nola eredu erromanikoak, batetik; Orton, Sanderson eta Widdowson-ek argitaratutako *The Linguistic Atlas of England*, bestetik; Hans Goebek bere lan dialektometrikoetarako erabiltzen zuen Voronöiren poligonazioa, eta abar.

Kostatu zitzaigun mapagintza ereduarekin asmatzea, bi arrazoiengatik. Lehena teknikoak zen, mapazola Thiessen poligonoen arabera antolatu behar zelako (ez zen inoiz egina izan hizkuntza atlasgintzan), erantzunak lemaka multzokatu behar baitziren. Bigarrena ez zen teknikoak izan; aditu anitzek pentsatzen zuten gure mapagintza eredu interpretatiboegia zela. Baina argudiatu genuen *ALFeko* eta gainerako hizkuntza erromanikoetako puntuz puntukako mapagintza ezin zela gure ereduak izan.

Gure mapagintza berritzailea izan zen hizkuntza atlasgintzan eremukako mapak eraikiz. Gainera, mapetan erantzunak ez eze, proposamen onartuak (hitzak proposatu ondoren lekukoek herrikotzat hartuak) ere azaltzea lortu zen. Hala, mapa ikusgarriagoak lortu dira. Are gehiago, *EHHAk*o kartografia polimorfismoa aztertzeke ezin hobe delako esan behar da: mapetan zein erantzutegietan erruz aurkituko du irakurleak galdera bakoitzeko erantzun (edo aldaera) bat baino gehiago duten herriak. Eta hori ez da kasualitate hutsa, edo euskarak duen ezaugarri berezia; horren bila berriaz joan izan gara datu-bilketan lekukoak kilikatuz, hitzak proposatuz, etab. Jakinik hizkerak bariazioan baino ez direla bizi eta hizkuntzaren izaera dela bariazioa.

3. Hizkerak sailkatzeko metodoez

Ordu da *ESBren* metodologiak hartu dituen kritikak aipa ditzagun. Dialektometriari (DM aurrerantzean) sartzen da argi eta garbi liburua. DMk datu-kopuru handiak behar izaten ditu; hori dela eta, gehienetan hizkuntza atlasetako emaitzak erabiltzen ditu. Euskalkien sailkapena egiteko *EHHAk*o datuak, eraldatuz, erabili dira. Argitaratutako liburukietatik edanez, datu fonetikoetan irakurtzen direnak forma ortografikoan idatzi dira *ESB*rako artxiboetan eta lematizazio berria egin. Deigarria da Zuazok (2020: 276) hizkerak sailkatzeko metodoez diharduelarik erabilitako oinarritzko datuak bakarrik aipatzen dituela kritiketan eta aipamen txikienik ere ez duela egiten sailkatzeko metodo eta teknikez.

¹ Izatez, oso lan gutxi argitaratu da *EHHAk* eskaintzen dituen datuak aztertzea helburu dutenak; bakan horien artean aipatu behar da Abaitua (2018, 2021).

3.1. Metodologia

Hizkerak sailkatzeko metodoez diharduenean «ezaugarri komunak, Euskal Herri osoan erabiltzen diren gertakariak, ikerketa dialektaletan alde batera uztea da zentzuzkoena» dela dio (2020: 277). Garbi islatzen du bere metodoa isoglosetan oinarritutakoa dela, dialektologia tradizionalen erabiltzen dena eta zaharkitua gelditu dena (ikusi behean erreferentziak). Metodo horrekin soberan dira eremu osoa hartzen duten ezaugarriak, ez baitute isoglosarik eragiten. Berak erabiltzen duen marko teorikoan (dialektologia tradizionalen) soberan diren ezaugarriak dira.

Egungo ikerketan, aldiz, unibertso osoa (eremua bere osotasunean hartzea) ezinezko denean lagin ordezkarriak erabiltzen dira. Dialektologian ere horretara jo behar dela deritzogu, soziolinguistikan eta zientzietan egiten den bezala. Guk ere bide hori jorratu dugu, bai hizkuntza ezaugarrietan eta baita herrien edo euskararen aldaeretan. Desberdintasunak soilik hartzen badira kontuan ez da hizkuntza bere osotasunean hartzen.

Metodoez dihardugularik, gure artean ezezagunak badira ere, hizkerak konparatzeko eta sailkatzeko metodo bat baino gehiago dago. Bonaparte eta Zuazok erabili duten «isoglosen metodoa», batetik; «egituraren metodo geografikoa», euskararen eremuan N. Moutardek (1975) erabilia, bestetik; edo berriago den dialektologia kuantitatiboa (edo dialektometria), besteak beste. Ez dago ahulgunerik ez duen metodorik; ezaguna da isoglosen metodoak kritika zorrotzak ezagutu dituela oso aspaldidanik (ikus, besteak beste, Bloomfield 1933: 321-345, Kessler 1995, Inoue 1996 eta Nerbonne & Heeringa 2010) eta metodo hori gairitu beharra aipatu da maiz. Mitxelenak berak ere zalantza egiten du metodo honen aurrean (1976: 319): «... se emplean en realidad, aquellos criterios que en la práctica se han demostrado más manejables, que no son necesariamente los mejores en teoría».

Isoglosen metodoa ezaugarrien aukeraketan oinarritzen da. Ikertzaileak bere iriziz aukeratutako ezaugarriak izaten dira. Egia esateko, hizkeren ezaugarriez informazio gutxi zen garaiko metodoa da. Corpus handiak lortu zirenean, eta, batez ere, corpus horiek datu-baseetan egituratu zirenean hasi zen datu kopuru handiak erabiltzeko joera. Eta hortik sortu zen DM; hots, hizkuntza-datuak kuantitatiboki aztertzeko metodologia. Oso urrats garrantzitsua dela kontsideratzen dugu.

Gure *ESB* libururako oinarri gisa *EHHA* hartzeaz ere mintzatzen da (Zuazo 2020: 276):

Esan nahi dudana da tresna hori bera bakarrik hartzea, 1980tik hona egin den arrerakuntza kontuan hartu gabe, huts egite nabarmenegia dela. Gaur egun bertan ere, 2020 honetan, Euskal Herriko eremu zabal asko guztiz ezezagunak ditugu: Ipar Euskal Herri eta Gipuzkoa gehiena, eta Nafarroako eta Bizkaiko hainbat alderdi.

Bada, nola erkatu sasoi desberdinetako, adin desberdinetako, metodologia desberdinetako datuak? Hizkuntzalari batek jakin behar du dialektologia sinkronikoan ere ezin direla nahasi, bariaziozko soziolinguistikak ederki erakutsi duen legez. Ez da zientifikoki zuzena hizkeren sailkapena egiteko garai desberdinetako datuak nahastea. Bestalde, esaten du «guztiz ezezagunak ditugu[la] Ipar Euskal Herri eta Gipuzkoa gehiena». Alabaina, jakin behar luke Gipuzkoan 36 herritako milaka datu bildu dituela *EHHA*k, 27takoak Nafarroan, 45 herritakoak Ipar Euskal Herrian... Ez ote da nahikoa euskararen bariazioa bere osotasunean ikertzeko? Halere, hizkera anitz ezeza-

gunak zaizkiola aitortuta ere, Zuazok berak euskalkien mapa osoa ondu du. Gure ustez, bestelako hurbilketa teorikoek ere horretarako zilegitasun osoa dute.

Arrazoi du Zuazok 1980tik hona datu asko bildu dela eta ezagutza handiagoa dela esatean; ez dago zalantzarik, baina batez ere *EHH*Aren ekarriagatik dela esango genuke. Aipatzen dituen lanetan bada garia, zinez diogu, baina iraka ere bai; dena ez dela urregorria, alegia. Gainera, ez dira datu homogeenak eta nekez erka daitezke bateko eta besteak, adin desberdinetako jendearen datuak direlako, maisu-lanen ondoan hasiberrienak ere badirelako, hartan inolako zehaztasunik gabe agertzen direlako...

Orrialde berean beste hau ere irakur daiteke (Zuazo 2020: 276):

Labur esateko, euskalkien sailkatzaile berriek erabat osoa eta erabat zuzena ez den helduleku batean eraiki dute euren proposamena. Denbora-pasa eta libertimendu moduan egin daitezke horrelako saioak, baina komunitate zientifikoaren aurrean agertzeko, oinarri sendoa eta kontrastatua da nahitaezko.

Ondoko pasartean Atlasaren pisua deitoratzen du (Zuazo 2020: 283): «*EHHA* eta gisa horretako atlasak eurak bakarrik hartzen baditugu, ezingo dugu behin-betiko eta erabateko dialekto sailkapenik egin. Atlasak beti izango dira lagungarri, baina «lagungarri» soil; ez oinarri bakar».

Kritika horren egileak dioena gorabehera, liburuko kapitulu gehienen bertsio sakonak aurretik nazioarteko kongresuetan aurkeztu eta ondoren argitaratu dira. Ez da zilegi, beraz, «denbora-pasa eta libertimendu moduan» aurkeztea hurbilketa teoriko bat, hain zuzen gure ustez nazioarteko dialektologiak xx. mendean eman duen salto kualitatibo handiena denean. Horren berme dira Hans Goebel, John Nerbonne, Fumio Inoue, Edgar W. Schneider, William A. Kretzschmar, nazioarteko dialektologo famatuenetakoak, edo J. Veny, P. García Mouton, I. Fernández-Ordoñez, X. Sousa, M. González, E. Carrilho hurbilagokoak. Ez dugu uste kritikaren autoreak aski argumenturik eskaintzen duenik zalantzan jartzeko dialektologo hauen guztien ikerbidea eta urteetako jarduna.

*EHHA*z gainerako monografiak *ESB* liburuan kontuan ez hartzeko bada arrazoi bat baino gehiago, bat baino aipatuko ez den arren. Monografiotan informazio-emaileen ezaugarri soziolinguistikoak desberdinak dira kasu askotan. Hots, *EHHA*n, gorago aipatu bezala, *NORM* soslaiko jendea aukeratu da. Aldiz, gorago aipatu monografiotan denetarik dago adinari dagokionez. Ez dagoela batasunik monografiatan da esan nahi duguna, bakoitzak bere ezaugarriak dituela. Beraz, monografiotako datuak ere hartzean koherentzia soziolinguistikoa galduko luke lanak eta ez genuke jakingo zein soslaitako pertsonen datuekin eraiki den sailkapena; eta, ondorioz, lortzen den euskalkien banaketak anabasiatik gehiago luke beste ezeretik baino. Ezen honezkerok badakigu herri bereko adin-tarte desberdinetan euskara desberdina egiten dela eta metodologikoki desegokia dela soslai desberdinetako jendearen datuak batera tratzea.

3.2. Kuantifikazioaz

Bitxia da oso ezer ez esatea hizkeren arteko desberdintasunen kuantifikazioaz. Eta erabakigarria da, hain zuzen ere hizkerak zertan bereizten diren jakiteaz gain,

behar-beharrezkoa delako jakitea zenbatetan bereizten diren ere, hizkeren sailkapena egiteko. Jada Mitxelena berak oso argi zuen gai hau ondokoa idatzi zuenean (1981: 295):

No puedo entrar aquí a discutir hasta qué punto son divergentes los distintos dialectos vascos. Me limitaré, pues, a decir que una consideración científica de este y otros problemas semejantes exige, como requisito indispensable, algún procedimiento operativo de cuantificar las distancias lingüísticas, y remitiré a la propuesta de nuestro malogrado amigo Jean Séguy, (...).

Horregatik sortu zuen hain zuzen ere DM Séguyk. Eta metodologia honetaz lehen lana 1973an argitaratu bazen ere, Mitxelena ezagun zuen 1981an argitaratu zuen «Lengua común y dialectos vascos» lana egitean. Baina Séguyren bide horri ez zaio batere kasurik egin gurean, harik eta Aurrekoetxeak (1992) kuantifikazioa erabiliz euskarari buruzko lehen lana argitaratu arte.

Bestalde, inor aipatu gabe, DM-ren kontra daudenak ez direla «dialektologo kaskarrenak eta ezjakinenak» dio (Zuazo 2020: 283), baina erantsi daiteke bai zaharrenak direla. Eta badakigu jendea mesfidati dela metodo berriak sortzen direnean, baina iruditzen zaigu aukerak alferrik galtzea dela edozein sailkapen egiteko (izan dadin hizkerena ala beste objektu batzuen) teknologiaren beharrik ez sentitzea egun. Berriztapena, hizkuntzalaritzaren beste alorretan bezala, beharrezkoa da dialektologian ere.

3.3. Sailkapenaz

Jakina da haren eta gure sailkapena desberdinak direna: harenak bost euskalki eta gureak hiru baino ez (Zuazo 2020: 281):

Hasteko, Euskal Herria bitan bereizten duen muga administratiboa hizkuntza muga garbia ere badela erakutsi dut. Hamabosgarren menderako bazen muga hori eta, harrezkero, sakondu besterik ez da egin. Gaur egun horixe iruditzen zait muga dialektalik garbiena. Horretan, behinik behin, bat datoz nirekin sailkatzaile berriak.

Bada, hala «iruditzen» bazaio ere, ez da muga garbiena, kuantitatiboki aztertuz, behintzat. Izan ere, mendebaldeko euskalkia eta erdialdekoaren arteko muga garbigoa da, aipatzen duen hori baino, gure datuekin eta gure metodologiarekin, noski. Darabilgun metodologiarekin, datu eta zenbait froga ematen ditugu muga honen alde, eta egoki litzateke, eztabaida oinarritu baten hobe beharrez, hark ere haren iritzia ahalik eta zehatzen zedarritzea. Horrenbestez, ezin esan daiteke horretan bat gaitozenik, Zuazok hala adierazten badu ere, guztiz kontrakoa esaten baitugu; alegia, mugarik sakonena mendebaldeko eta erdialdeko euskalkien artekoa dela.

Ipar Euskal Herriko banaketaz ondokoa dio (Zuazo 2020: 281): «Ipar Euskal Herri horretan «euskalki» bi ikusten ditut: a) zuberotarra eta b) nafar-lapuritarra. Eta zeri deitzen diodan «euskalki»? Ba, berrikuntzak sortzeko eta eremu homogeneo samarrean zabaltzeko gaitasuna duen eremuari».

Eta (*ibid.*): «Euskalkien sailkatzaile berriek, ordea, Ipar Euskal Herrian euskalki bakarra eta haren barruan hiru azpieuskalki bereizi dituzte. Hauxe izan daiteke horren arrazoia: *EHHA*ean galdera egokiak egin ez izana. Beharbada horrexegatik ez dira gauzak gardenago agertu».

Bada guk frogatzen dugu bakarra dela. Eta zeri deitzen diogun euskalki? Bada, erabiltzen diren datu eta metodologiaren arabera eremu hori trinkoagoa delako (desberdintasun gutxiago dagoelako osatzen duten hizkeren artean), erdiguneko euskalkiko hizkerekin baino. Gure ustez, «ikusten ditut» eta «eremu homogeen samar» delakoak ez dira zientifikoak, ez zehatzak. Argi dago hurbilketa teoriko ezberdinak darabiltzagula, hark eta guk, baina horrek ez du haren bidea baitezpada egokiago eginen. Gurean, gainera, hizkeren arteko desberdintasunak kuantifikatu egin dira, eta frogara horren erakusgarri da dendrograma.

Bestalde, «*EHHA*ean galdera egokiak egin ez izana» esateko lehenik datuekin frogatu behar da zein diren egokiak eta zein desegokiak. Ez da nahikoa esatea galdera desegokiak direla herri guztietan berdinean esaten direnak, hain zuzen ere horren eragina euskararen eremu osora hedatzen delako.

Berdintsu gertatzen da, Gipuzkoa eta Nafarroako lurretako euskarari dagokionez ere. Hemen ere, ohiko kritikaren bidetik jotzen du Zuazok (2020: 282):

Sailkatzaile berriek, ostera, Gipuzkoa eta Nafarroa euskalki berean sartu eta haren barruan azpieuskalki bi egin dituzte. Oraingo honetan ere, beharbada, *EHHA*ean galdera egokiak egin ez izana izan daiteke arrazoia; nire emaitzen arabera, behinik behin, Azkoitia eta Abaurregaina euskalki berean sartzeko desberdinegiak dira.

Honetan ere *EHHA* ikusten du Zuazok haren ustez desegokia den sailkapenaren oinarrian. Alta, arestian argudiatu dugun bezala, kritika hori ez da zilegia, erakutsi baitugu gure hautu metodologikoak ongi errotuak direla. Darabilen hizkera ere berezia da, ez du uste osozko edo irmotasun osozko esaldirik. Horretaz gain, eztabaida plazaratzeko modua aski lausoa iruditzen zaigu: «beharbada... izan daiteke», «desberdinegiak» eta halako izendapenak erabiltzen baititu, eta guk datu eta zenbaki jakinen gainean osatu dugu gure ikuspegia. Bide horretatik, «Azkoitia eta Abaurregaina euskalki berean sartzeko desberdinegiak» direla dio. Alabaina ez zaigu iruditzen desberdinegi izate hori behar bezala definitzen duenik, ez baitu horretarako lagin ordezgarria duen corpus handi bat erabili. Aldi berean, hein berean esan dezakegu Goizueta eta Hernanikoa edo Goizueta eta Araizko Gaintzakoa, adibidez, berdintsuegiak direla bi euskalkitan bereizteko. Gure ekarpena da «berdintsu» edo «desberdintsu» terminoak kuantifikatzea.

Trantsizioegune edo zubi-hizkerez asko legoke esateko, nahiz puntutxo bat baino ez den aipatuko hemen: Zugarramurdi, Amikuze... non sailkatu jakin ez eta ondoak dio (Zuazo 2020: 284):

Leku horiek euskalki jakin batean argi eta garbi sartzetik ez dagoenez, «tarteko hizkera» deitu eta trama bidez aurkeztu ditut mapetan. Sailkatzaile berrien metodologiak ez du ematen, nonbait, horretarako aukerarik eta, iraganean bezala, lerro bakarrez bereizi dituzte euskalkiak, eten garbiak eginez. Ez zait iruditzen zuzen dabilzanik: dialektoen arteko mugak hori baino nabaragoak dira, gauzak ez dira beti zuri edo beltz.

Baina «tarteko hizkera» zer den ere definitu gabe, soberan dituen hizkerak sartzeko ez ote da bide errazegia? Kuantifika liteke eta neurtu delako hizkerak zein urruntasun edo hurbiltasun behar duten izan aldamenetako euskalkietatik. Dialektometriari era kuantitatiboan oratzen zaio gai honi (ikus adibidez, Aurrekoetxea, Igle-

sias, Clua, Usobiaga & Salicrú 2020) nahiz Zuazok ez duen horren beharrik ikusten, uste baitu berak zehazkiago jokatzen duela puntu horretan.

Ondoko lerroetan aski bortizki aipatzen ditu *ESB* liburuaren egileen mugak, euskararen jakintasuna murrizta dutelakoan (dugulakoan). Horrela dio (Zuazo 2020: 285):

Sailkatzaile berriak ez dira, nonbait, horretaz ohartu. Salbuespen bakar batekin —Ináki Gaminde—, gainerakoak ez dira euren euskalkiaren eremutik askorik urrundu eta, hori egin gabe, ezin da hizkuntzaren muinera ganoraz heldu. Bulegoko lana eta kanpokoak uztartzen ez badira, ezin da zuzen asmatu.

Baieztapen horren ahula agerian uzteko, zilegi bekigu *EHH*Ako liburukietara igortzea, han agertzen baita zehazki non ibili diren inkestak egiten sailkatzaile horietako bi. Aurrekoetxea, Bizkaiko herrietan ez ezik, Nafarroako, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko hainbatetan ibili da eta beste hainbatetako inkestak transkribatu ditu. Videgaini dagokionez, Iparralde osoan da ibilia *EHH*A eta *EHH*Az kanpo eta baita Hegoaldeko zenbait herritan ere, ez *EHH*A baina bai *ALE-Atlas Linguarum Europae* delakorako inkestak jasotzen; hori dela eta, Nafarroako hizkera batzuk eta bizkaiera ere ez zaizkio arrotz. Oron buru, esan daiteke *EHH*A zuzentzeko nahiko formakuntza eta euskal hizkerekin harreman izan dugula hasieratik eta formakuntza hori osatu dugula *EHH*Ako urrats eta epe guztietan, bulegoko lanetan nola kanpokoetan. Formakuntza horretan sartzen dira defenditu genituen tesiak (Aurrekoetxea 1995; Videgain 1989), biak esperimentu onak izan baitziren *EHH*Araiko, *EHH*Aren onurako, eta *ES*Brako.

4. Amaitzeko

Gure metodoa eta Zuazorena erkatu gura duenarentzat ideia batzuk zabaldu nahi ditugu amaitzeko: batetik datuei eta bestetik jarraitutako prozedurei dagokienez.

- a) Datuak: demagun Bizkaiko eta Zuberoako bi herritako hizkeren artean zein desberdintasun dagoen neurtu nahi dugula. Hizkuntza berekoak badira ezaugarri batzuk berdinak behar dituzte izan eta beste batzuk desberdinak. Bestalde, bi hizkera edo gehiagoren arteko desberdintasunak neurtzean hizkuntzaren ezaugarri guztiak ezin direnez erabili, beste zientzia batzuetan bezala, laginak erabiltzen dira. Ondoen ordezkatzan duen lagina lortzea da helburua. Haren lagina erabiltzen bada Zuberoako eta Bizkaiko hizkeren arteko desberdintasuna %100 da. Eta hori ez da benetan gertatzen errealitatean. Horrek esan nahi du erabili duen lagina ez dela ordezkagarria. Ez du hizkuntza ondo ordezkatzan eta ondorioz ezin du sailkapen egokia egin. *ESB*n erabili den laginaren arabera, adibidez, Zuberoako Altzürükü eta Bizkaiko Dimako hizkeraren artean % 63 da dagoen desberdintasuna; honek esan nahi du % 37 ezaugarri berdina dituztela bi herri horietako hizkerak.
- b) Prozedura: kuantifikazioa vs «a ojo de buen o mal cubero», Mitxelenak (1981: 295) zioen bezala: bi prozedura hauen artean bada desberdintasun gehiago ere; horietako bat ondoko hau da: buruz, begiz edo aliritzira aritzean ezaugarri gutxi batzuk baino ezin dira erabili aldiro; ezinezkoa da buruz 108 ezaugarri aldi berean erabiltzea. Marro txiki bat dago hemen: ez dira ezaugarri guztiak aldi berean erabili hizkerak bereiztean, eremu bakoitzean batzuk eta bestean

beste batzuk baizik. *ESB* libururako, ordea, hizkera guztiak eta ezaugarri guztiak aldi berean erabili dira eta desberdintasunen arabera joan dira multzokatzeko hizkerak.

Erreferentziak

- Abaitua, Joseba K. 2018. Patrones geolingüísticos, áreas dialectales y cronologías absolutas del *EHHA*. *FLV* 126. 283-322.
- Abaitua, Joseba K. 2021. El continuo dialectal del *EHHA*. In Adolfo Arejita (arg.), *Aniztasuna: hizkeren berba-mintzoak*. *Euskaltzaindiaren II. Nazioarteko Dialektologia Biltzarra*, 167-180. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Aguirre, José. 1922-1926. «De investigación etnográfica». Cuestionarios gráficos. Cuestionarios nros. 1 y 2. «El arado». *RIEV* 12. 483-486; *RIEV* 17. 123-126.
- ALD = Goebel, Hans. 2000-2012. *Ald-i sprachatlas des dolomitenladinischen und angrenzender dialekte: Atlante linguistico del ladino dolomitico e dei dialetti limitrofi*, 1. lib. Wiesbaden: Reichert. 2. lib.: Strasbourg: Éditions de Linguistique et de Philologie.
- ALE = Viereck, Wolfgang. 2006. The Atlas Linguarum Europae. A Brief Presentation. *Dialectologia et Geolinguistica* 14. 104-110. <https://doi.org/10.1515/dig.2006.2006.14.104>.
- ALF = Gillieron, Jules & Edmond Edmont. 1902-1910. *Atlas linguistique de la France*. Paris: Champion.
- ALGa = Hainbat egile. 1990-2019. *Atlas lingüístico galego*, 6 lib. Santiago: Fundación Barrié.
- ALI = Istituto dell'Atlante linguistico italiano. 1995-. *Atlante Linguistico Italiano*. Torino: Università degli Studi di Torino. <https://www.atlantelinguistico.it/> (2024/01/21).
- Allières, Jacques. 1979. Statut et fonction des flexions verbales 'pluripersonnelles'. *La Linguistique* 15(1). 3-30.
- Alvar, Manuel, Antonio Llorente, Tomás Buesa & Elena Alvar. 1970-1983. *Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y la Rioja*. 12 lib. Madrid & Zaragoza: Departamento de Geografía Lingüística del CSIC & Institución «Fernando el Católico».
- Aurrekoetxea, Gotzon. 1985. V. barne jardunaldiak. *Euskera* 30. 649-654.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 1986. *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)*: inkesta metodologia eta ezezko datuak. *Euskera* 31. 413-424.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 1992. Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa. *Uztaro* 5. 59-109.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 1995. *Bizkaieraren egituraketa*. Leioa: UPV/EHU.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 2002. Algunas consideraciones sobre la contrapregunta en las encuestas lingüísticas. In Lúcia Rabassa (arg.), *Mélanges offerts à Jean-Louis Fossat*, 57-65. Toulouse: Université De Toulouse-Le Mirail.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Iñaki Gaminde, José Luis Ormaetxea & Xarles Videgain. 2020. *Euskalkien sailkapen berria*. Leioa: UPV/EHU.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Aitor Iglesias, Esteve Clua, Iker Usobiaga & Miquel Salicrú. 2020. Analysis of Transitional Areas in Dialectology: Approach with Fuzzy Logic. *Journal of Quantitative Linguistics* 28(4). 337-355. <https://doi.org/10.1080/09296174.2020.1732765>
- Azkue, Resurrección M^a. 1905. *Diccionario vasco-español-francés*. Tours: Mame.
- Azkue, Resurrección M^a. 1922. *Cuestionario Eusko Erizkizundi Irukoitzza*. (Argitaragabea): Euskaltzaindia.

- Azkue, Resurrección M.^a. 1942 [1989]. *Euskal Erriaren yakintza*, 4 lib. Madril: Espasa Calpe.
- Barandiaran, José Miguel. 1974. Bosquejo etnográfico de Sara. In *J. M. Barandiaran. Obras Completas*, 4. lib. 245-511. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Barandiaran, José Miguel. 1975. Guía para une encuesta etnográfica. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 20. 277-325.
- Barbiers, Sjeff, Johan van der Auwera, Hans Bennis, Eefje Boef, Gunther de Vogelaer & Margreet van der Ham. 2005-2008. *Syntactische Atlas Van de Nederlandse Dialecten-SAND*, 2 lib. Amsterdam: Amsterdam University Press.
- BDLC = *Banque de Données de la Langue Corse*. <https://bdlc.univ-corse.fr/bdlc/corse.php> (2024/01/21).
- Bertin, Jacques. 1967. *Sémiologie graphique: Les diagrammes, les réseaux, les cartes*. Paris: Éditions EHESS.
- Bloomfield, Leonard. 1933. *Language*. New York: Holt, Winehart and Winston.
- Bouvier, Jean-Claude. 1982. Les atlas linguistiques et ethnographiques en France : bilan et perspectives d'avenir. *Technologies, Idéologies, Pratiques, Actes de la Table Ronde internationale*, 227-241. Aix-en-Provence. <https://amu.hal.science/hal-03640475>.
- Brunet, Roger. 1987. *La carte, mode d'emploi*. Paris: Fayard & Reclus.
- Chambers, Jack K. & Peter Trudgill. 1998. *Dialectology*. 2nd ed. Cambridge: Cambridge University Press.
- Coyos, Jean Baptiste. 2020. Erreseina: «Euskalkien sailkapen berria. Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Jose Luis Ormaetxea Ttipi, Xarles Videgain». *FLV* 129. 295-314.
- Dalbera-Stefanaggi, Marie-José. 2007-2017. *Nouvel Atlas linguistique de la Corse*. Paris: CTHS Edition & Alain Piazzola.
- EHHA = Aurrekoetxea, Gotzon & Xarles Videgain (ard.). 2010-2021. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, 11 lib. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Etxaide, Ana María. 1984. *Erizkizundi Irukoitza*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Etxebarria, Jose María. 1986. Euskal Herriko atlas linguistikoaren historiako. *Euskera* 31. 375-412.
- Gardette, Pierre. 1951. L'atlas linguistique et ethnographique du Lyonnais. *Le Français moderne* 19. 13-19.
- Kessler, Brett. 1995. Computational Dialectology in Irish Gaelic. In Steven P. Abney & Erhard W. Hinrichs (arg.), *Seventh Conference of the European Chapter of the Association for Computational Linguistics*, 60-67. Dublin: Association for Computational Linguistics.
- Lafon, René. 1980 [1943]. *Le système des formes verbales à auxiliaire dans les principaux textes basques du XVII^e siècle*. Donostia: Elkar.
- Larrasket, Jean. 1939. *Le basque de la Basse-Soule orientale*. Paris: Klincksieck.
- Le Dù, Jean. 2001. *Nouvel atlas linguistique de la Basse-Bretagne*. Brest: CRBC.
- Lhande, Pierre. 1926. *Dictionnaire basque français et français-basque*. Paris: Beauchesne.
- Mitxelena, Koldo. 1976. Fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas. *Revista Española de Lingüística* 6(2). 309-326.
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética Histórica Vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. argit., 1961).
- Mitxelena, Koldo. 1981. Lengua común y dialectos vascos. *ASJU* 15. 289-313.

- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (11. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Moutard, Nicole. 1975. Étude phonologique sur les dialectes basques. *FLV* 19. 5-42; *FLV* 20. 141-189; *FLV* 22. 9-54.
- Mujika, Plácido. 1973. *Diccionario castellano-vasco*. 2. argit. Bilbo: Mensajero.
- NALF = Dauzat, Albert. 1942. *Nouvel atlas linguistique de la France par régions*. Paris: Impr. S. Pacteau.
- Nerbonne, John & Wilbert Heeringa. 2010. Measuring linguistic differences. In Jürgen Erich Schmidt & Peter Auer (arg.), *Theories and Methods (Language and Space vol. 1)*, 550-566. Berlin: Mouton De Gruyter.
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Orton, Harold, Stewart Sanderson & John Widdowson. 1998. *The Linguistic Atlas of England*. Routledge Library Editions Series.
- Philipp, Marthe, Arlette Bothorel-Witz & Sylviane Spindler. 1984. *Atlas linguistique et ethnographique de l'Alsace*, 2. lib. Paris: Editions du CNRS.
- Ravier, Xavier. 1978-1993. *Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc Occidental*, I-IV lib. Paris: CNRS.
- Ravier, Xavier. 1985. Les données négatives dans l'ALG. *Revue de Linguistique Romane* 29. 262-274.
- Rebuschi, Georges. 1984. *Structure de l'énoncé en basque*. Paris: SELAF.
- Séguy, Jean. 1965-1973. *Atlas linguistique et ethnographique de Gascogne*, I-VI. Paris: CNRS.
- Séguy, Jean. 1973. La dialectométrie dans l'atlas linguistique de la Gascogne. *Revue de Linguistique Romane* 145-146. 1-24.
- THESOC = Dalbera, Jean-Philippe. *Thesaurus Occitan*. <https://bcl.cnrs.fr/rubrique40> (2024/01/21).
- Trudgill, Peter. 1983. *On dialect. Social and Geographical Perspectives*. Oxford: Basil Blackwell.
- Veny i Clar, Joan & Lúdia Pons i Griera. 2001-2018. *Atlas lingüístic del Domini Català*. Barcelona: IEC.
- Videgain, Xarles. 1989. *Le vocabulaire de l'élevage en pays d'Ostabarret. Contribution aux archives de l'oralité basque*. Bordele: Université de Bordeaux-eko doktorego tesia.
- Videgain, Xarles. 2021. Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren geroaz. In Adolfo Arejita (arg.), *Aniztasuna: hizkeren berba-mintzoak*, 25-48. Bilbo: Euskaltzaindia.
- DiWA = *Digital Wenker Atlas*. Universität Marburg & Akademie der Wissenschaften und der Literatur, Mainz. <https://www.uni-marburg.de/en/fb09/dsa/projects/diwa> (2024/01/21).
- Zuazo, Koldo. 2020. Euskalkien sailkapen berriaz zenbait ohar. *FLV* 129. 269-291.